



BOLIVIA

“Ñucu Zizarea”

Liburu honetan egileek Boliviako herri-ipuín bat aurkezten digute kultura, leíendak, kondairak, herriko ospakizunak, ohiturak eta gastronomía lagunduta. Gure artean kanpotik etorri eta gurekin bízi direnek beraíen kultura hobeto ezagutzeko bide ematen digute.

Bilduma honen helburua aníztasunaren aldeko apostua da. Kultura ezberdinen arteko elkarbízitzea, ezagutza eta errespetua landu nahi dugu

Kokapena
Aurkezlea

Ipuína: “Ñucu Zizarea”

Txikitako pasadizoak

Ospakizunak

Gastronomía

Errezeta

Didaktika

KOKAPENA

QUECHUA ETA AIMAREN HERRIA



BOLIVIA





BOLIVIAKO EZAUGARRI NAGUSIETAKO BAT DA BERE GIZA TALDEEN ANIZTASUNA. EU-ROPARRAK ETORRI BAINO LEHEN, HAINBAT KULTURA BIZI ZIREN BERTAN ETA BERE JATORRIZKO JENDARTE TALDEEK SORTUTAKO KULTUREK DIRAUTE GAUR EGUN. GEHIEN HITZ EGITEN DIREN HIZKUNTZAK GAZTELANIA, QUECHUA ETA AIMARA DIRA. HALA ERE, HOGEITA HAMASEI BAT HIZKUNTZ ERE OFIZIALTZAT HARTUAK IZAN LITEZKE, GUARANI BEZALA. HAUETAZ GAIN, BESTE HAINBAT DAUDE AZPI-HIZKUNTZAK OFIZIALTZAT HARTUTA. GAUR EGUN, BOLIVIAKO EKONOMIA MEATZARITZAN, PETROLIO ETA GAS NATURALAREN INDUSTRIAN, NEKAZARITZAN, ZEMENTU EKOIZPENEAN ETA EHUNGINTZAN OINARRITUTA DAGO.



AURKEZLEA

MIRIAM, SANTA CRUZ, BOLIVIA



45 urte nituela, Gernikara etorri nintzen nire lau nebek gonbidatuta. Haiek ni baino lau urte lehenago etorri ziren. Herriz herri lan bila ibili nintzen etengabe. Azkenean Gernika aldean geratu ginen. Hemengo jendeak harrera ona eman zigun eta, egia esanda, ni ere ondo hartu naute.

Oso ondo moldatzen naiz, batez ere ikastolako amekin. Nebek baino errazago izan dut. Haiek etorri zirenean ez zuten inor ezagutzen eta.

Nebek poliki-poliki aurrera jo dute, etxe handiagoak erosi dituzte familia ekarri ahal izateko. Hasieran gela txiki batean bizi nintzen nire bi semeekin. Orain, berriz, etxe bat daukat eta oso pozik nago. Lehenengo urteetan herriko andre batek asko lagundu zigun. Hala ere, gure ama hemen egongo balitz pozaren pozez biziko nintzateke.

Felixek, nire semeak, 15 urte ditu eta Bolivian jaio zen, Georgina, 5 urtekoa Londresen jaio zen. Argazkiz ezagutu zuten elkar.



Oso ondo daude elkarrekin. Semea oso ísila da. Hasiera batean, Bolíviar edota argentinarrekin baino ez zen kalera irteten eta horrek kezkatzen ninduen, baina denboraren poderioz herriko jendearekin ere ateratzen hasi zen. Nahiko euskara daki, baina oraíndik ez da euskaldun osorik sentitzen. Georgínak oso ondo egíten du euskaraz.

Hasieratik Bolíviara bueltatzeko asmoa izan dut. Baina Bolívia gaur egungo egoera ez da bat ere ona. Gáinera, daukadan adinarekin oso zaila izango litzateke bertan lana topatzea, ní baino jende gazteagoa nahi dutelako. 30 urte baino gehiago ditugunok zaharrak omen gara lan egiteko. Beraz, nire semeen etorkizunerako onena egín behar dut, ník páiratutakoa haiek berriro pasatzea ez dudalako nahi. Oraintxe bertan inoíz baino hobeto nago. Felixek askotan aitarena egíten du Georgínarekin. Seme-alabak bakarrik hezi behar izan ditut; horí dela eta, benetan, edonoren laguntza eskertzekoa da, oso lan gogorra da eta.

Hemengo bizítzan, kultura-aníztasunari buruzko hitzaldietan, zein herri-bazkarietan, zein ekitaldietan parte hartzen dut. Eta zuen artean gure kultura zabal-tzea oso gustuko dut. Nire ustetan, elkar ezagutzeko modu bakarra delako. Gu hona etorri gara aukera berri bila eta oso argí utzi nahi dut ez dugula, inolaz ere, zuetaz aprobetxatzeko asmorik.

